

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbon, egoitzan, 2002-V-24

Mikel Gorrotxategi

Egun on jaun-andreok.
Saiatuko naiz laburra izaten.

Ermuko Udalak erabaki zuenean Fernando Aranberri lana hau ikertzeko izendatzea, Euskaltzaindiak erabaki zuen ni izendatzea araugintzaz ohar batzuk egiteko eta Fernando pixka bat lagun lan hau normalizatzen, eta uste dut lan bikaina egin duela berak, berak egin baitu lana. Lana niretzat oso asegarria izan da, zeren 388. orrialdean nire birraitite jaio zen etxea agertzen baita. Beraz, esan dezakegu, bira asko eman ondoren, Eitzagara bueltatu gara gorrortxategitarrok. Fernandok egin duen lana, ikaragarria ez ezik, nik uste, Onomastika arloan egin den libururik onenetakoa ere badela, beste pare bat ere aipa genezake, baina ez dago askorik, hau baino hobeak direnik. Zergatia oso begi bistakoa da, askotan Onomastika alorreko lanak izan dira zerrendak, oso ondo hornituta, datu askorekin, baina askotan jende arrunterako liburu irakurtezinak, mardulegiak izan edo datu gehiegi zituztelako. Fernandok bete-beteen asmatu du konturatzean zein den Onomastikaren balioa, zertarako balio duen edo zer den Onomastika eta orduan saiatu da liburu atsegin bat ematen, jendeak irakurriko duena eta jendeak gozatzeko liburua, ez soilik adituon gozamen edo ikerketarako. Horrela lortuko du holako lanen helburu nagusietako bat, normalizatzea.

Hemen, Onomastika ikerketetan, hiru atal daude, ikerketa bera, arautzea eta azkenik normalizazioa. Arautzea, Akademiaren lana, kasu honetan neure gain utzita, bizirik dauden toponimoak lotzea da. Leku-izen bizi horiei mugak jartzea, eta nolabait urari presa egin berezko eboluzioa mugatuz. Hori da arautzea, nola idatzi behar diren finkatzea, *Eixola* esan arren, **Arriola** jarri behar dela. Azkeneko puntua normalizatzea da, eta zer da normalizatzea, jendeak izen horiek era arautuan erabiltzea. Alferrik da ikertzaile on batek lan ikaragarri egitea, Valladolidera joatea edo Simancasera joatea eta izen bat nolakoa zen edo nolakoa izan behar den aurkitzea, gero hiritarrek horren berri eta arautzearen zergatia ez badu. Ezin bestekoa da horren berri izan eta herritarrek benetan izen hori erabiltzea. Eta nik uste dut liburu honetan, Fernandok, bete-beteen asmatu duela normalizatzeko jendeak izenak bereganatzeko bidea

finkatzea. Eta horregatik nik uste dut aipagarria dela liburu hau, ez Bizkaiko lehenengoa izateagatik, hori aipagarria da, bereziki, Bizkaiko agintarientzako, baina nolabait esparru berriak ireki dituelako gure liburu honek. Esan behar da baita ere liburu honetan uztartu direla euskaldunen mundu biak, askotan esan izan da euskara dela baserri munduko gauza bat eta hemen biltzen dira *Ermua* hiria eta *Eitzaga* baserri mundua nolabait, horiek baitira euskararen berezko esparruak, hiria eta herria eta hemen liburu batean dauzkagu bilduta.

Amaitu aurretik, eskerrak eman erakunde publikoei, bereziki Ermuko Udal eta Bizkaiko Foru Aldundiari horrelako liburuak egiteko bidea eman dutelako eta egilea berari egin duen lan bikainagatik.